



**Ander
Elortegi
Garatea**



UNIBERTSOA



Doinua:

**Zazpiak oihal batetik
Zortziko handia**

Izarren azpian zerura begira jarri eta hondar ale sentitzea. Unibertsoaren zabala. Eskolan landu al ditugu planetak?

Espazioa ezagutzea gure txikitako **nahia**. Jantzi trajea, jarri kaskoa eta bota **erregaia**. Lau, hiru, bi, bat, zero... heldu da abiatzeko **garaia** begiak itxiz egin dezagun unibertsoa **bidaia**.

Mila milioika galaxia daude unibertsoan **barrena** eta gureak, hain zuzen dauka, Esne Bidea **izena**. Izarrez, gasez, hautsezko lainoz osatuta **dagoena** espiral horren beso batean dago eguzki **sistema**.

Eguzkia da sistema honen erdiguneko **izarra**. Hidrogenoak ta helioak pizten dute bere **garra**. Landare eta animaliek daukate bere **beharra** hortik jasotzen da bizitzeko energia ta **indarra**.

Zortzi planeta dira guztira gaur sistema honen **parte**, eguzkiaren bueltan orbita ezberdin bana **dakarte**. Harriz eginak Merkurio, Lurra, Artizarra eta **Marte**; gizakiak ez dauka bakerik bertara iritsi **arte**.

Jupiter eta Saturno, berriz, gasez osatuta **daude**; Urano eta Neptuno ere egitura horren **jabe**. Pluton gelditu zen planeta bat izateko dohain **gabe** tamainaz txiki zelako egin behar izan zuen **alde**.

Beti borrokan ari garenez grabitatearen **aurka** berriz lur hartu edo aldendu norberak behar du **hauta**. Ziur norbaitek bere burua orain ilargian **dauka** denok daukagu gure barruan ezkutuko **astronauta**.